Apirilaren 6a: Jarduera Fisikoaren Munduko Eguna

# Apirilaren 6a: Jarduera Fisikoaren Munduko Eguna

## *Euskadiko gazteen % 75ek jarduera fisiko osasungarria egiten dute*

**Jarduera Fisikoaren Munduko Eguna** dela-eta, 15 eta 29 urte bitarteko gazteek egiten duten jarduera fisikoari buruzko datuak aurkezten ditu Gazteen Euskal Behatokiak.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak 2013an eginiko *Euskal Osasun Inkestatik* (2013ko EAEOI) hartutako datuen arabera, Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 75,3k inkesta egunaren aurreko zazpi egunetan jarduera fisiko osasungarria (neurrizkoa edo bizia) egin zuten. Gazteak Euskadiko biztanleria osoa baino aktiboagoak dira.




DEFINIZIOA: Azkeneko zazpi egunetan jarduera fisiko osasungarria (neurrizkoa edo bizia) egindako 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen ehunekoa adin-tarte horretako pertsona guztien arabera.

ITURRIA: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila, EAEko Osasun Inkesta.

Azken urteetan jarduera fisiko osasungarria egiten duten gazteen portzentajeak gora egin du, 2007ko % 67,6tik 2013ko % 75,3ra.

Mutilek jarduera fisiko gehiago egiten dute neskek baino. Zenbat eta gazteagoa izan orduan eta aktiboagoa.

Gazteen Euskal Behatokia
Gazteriaren Adierazleak

## OSASUNAREN ALORREKO OINARRIZKO DATUAK

**Jarduera fisikoa Todos (Ehunekoa, 2013)**




DEFINIZIOA: Azkeneko zazpi egunetan jarduera fisiko osasungarria (neurrizkoa edo bizia) egindako 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen ehunekoa adin-tarte horretako pertsona guztien arabera.

ITURRIA: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila, EAEko Osasun Inkesta.

Jarduera fisikoari buruzko adierazle hau '***Gazteen Adierazleak 2013'*** ikerketan kontsulta daiteke, "Osasuna" atalean, hain zuzen ere.

Gazteen Euskal Behatokiak gazteriaren egoerari buruz eginiko ikerketa zabal horren adierazle bat baino ez da hori. Ikerketan 111 adierazle biltzen dira; batzuk Behatokiak berak egindako azterlanetatik datoz eta beste batzuk iturri estatistiko ofizialetatik.

Guztia batuz gazteen egoerari buruzko panoramika zabala eskaintzen du, eta Euskadiko biztanleria osoarekin alderatzeaz gain, Espainia eta Europar Batasuneko gazteen egoerarekin ere konparatzen ditu.

Bertan agertzen den informazioa lau formatu ezberdinetan aurkezten da:

- **Datu base interaktiboa**. Grafikoak eta mapa interaktiboak egiteko aukera ematen du 111 adierazleen eboluzioa aztertzeko, alderaketak egiteko eta aldagai ezberdinen arabera aztertu ahal izateko.
- **Gazteen Adierazleen Panela**, ikerketa osatzen duten adierazle guztien informazioa biltzen duen laburpen-taula.
- **Adierazleen fitxak**, oinarrizko 64 adierazleei buruzko informazioa.
- **Laburpen exekutiboa**, aztertutako 111 adierazleen informazioa laburbiltzen duen testu laburra.